



UPV EHU

EUSKAMPUS

UNIBERTSITATEKO IKASLEEN ESTATUTUA

Abenduaren 30eko 1791/2010 Errege Dekretua


SARRERA

- Estatuko Unibertsitate Ikasleen Kontseilua osatuko dela *ezartzen* du.
- *Ministerioari atxikitako organoa* izango da, eta unibertsitate publiko eta pribatu guztietako ikasleek parte hartuko dute bertan.
- Ikasle guztiak *ordezkatzeko bide zuzena* izango da, *errektoreek dutenaren antzekoa*.
- Espainiako unibertsitate-sistemaren *modernizatze-politikak eztabaidatzeko funtsezko esparrua da*.

- ***Lehenengo xedapen gehigarria:*** aseguruua
 - Eskolako aseguruaren erregimena berraztertuko duen *lege-proiektua* aurkeztuko dute.
- ***Bigarren xedapen gehigarria.***
 - Urtebeteko epean *zigor-agintearen lege erregulatzaileria* aurkeztuko dute: arau-hausteen tipifikazioa, zigorrak eta neurriak.
- ***Azken xedapenetatik bigarrena.*** *Sei hilabeteko epean*, Estatuko Unibertsitate Ikasleen Kontseiluaren araudia.

16 KAPITULU DITU

- I. kapitulua: Xedapen orokorrak
- II. kapitulua: Ikasleen eskubideak eta betebeharrak
- III. kapitulua: Unibertsitaterako sarrera eta onarpena
- IV. kapitulua: Ikasleen mugikortasuna
- V. kapitulua: Tutoretzak
- VI. kapitulua: Titulu ofiziala lortzera bideraturiko ikasketetako irakaskuntza-programa eta ebaluazioa
- VII. kapitulua: Titulu ofiziala lortzeko xederik ez duten ikasketetako ikasleentzako irakaskuntza-programa eta ebaluazioa
- VIII. kapitulua: Ikasleen parte-hartzea eta ordezkaritza

- 
- IX. kapitulua: Ikasleentzako beka eta laguntzak
 - X. kapitulua: Elkarbizitza aktiboa eta unibertsitatearen erantzukidetasuna sustatzea
 - XI. kapitulua: Estatuko Unibertsitate Ikasleen Kontseilua
 - XII. kapitulua: Ikasleen kirol-jarduerak
 - XIII. kapitulua: Balioetan hezteak
 - XIV. kapitulua: Ikasleen jarduerak gizarte-partaidetzaren eta garapenerako lankidetzaren arloan
 - XV. kapitulua: Unibertsitateko ikasleentzako arreta
 - XVI. kapitulua: Ikasle ohien elkarteak

I. kapitulua – Xedapen orokorrak

1. artikulua.- Helburua eta aplikazio-eremua

- *Ikasleen eskubideak eta betebeharrak* garatzen ditu, eta Estatuko Unibertsitate *Ikasleen Kontseilua* sortzen du.
- Espainiako unibertsitate, berezko ikastegi, atxikitako ikastegi eta etengabeko prestakuntzako ikastegi guztiei *aplikatuko* zaie.
- *Ikasleen irudia zehazten du.*

II. kapitulua – Ikasleen eskubideak eta betebeharrak

- *Unibertsitatea hautatzeko, baztertua ez izateko eta aukera-berdintasunerako eskubidea.*
- **Aurretiazko** jakintzak, gaitasunak edo esperientzia profesional aitortuko dira, eta aitorten hori *Tituluaren Europako Gehigarrian* sartuko da.
- Unibertsitateek neurriak ezarriko dituzte **titulu ofiziala lortzera bideraturik ez dauden irakaskuntzak** osotasunean edo partzialki aitortu daitezkeen, betiere dagokion **titulua desagertu bada eta graduako titulu ofizial batek ordezkatu** badu.
- Unibertsitateko politikaren diseinuan, jarraipenean eta ebaluazioan parte hartzeko eskubidea.

- **Ikasketak** lan- eta familia-bizitzarekin **bateratzea** erraztuko duen arreta eta *jarduera akademikoen diseinua jasotzeko eskubidea*, baita genero-indarkeria jasan duten emakumeek beren eskubideak baliatzekoa ere.
- Tutoretza pertsonalizatua eta laneratzeari eta unibertsitate-hedapeneko jardueri buruzko informazioa.
- *Unibertsitateak ebaluazioari eta kalifikazioak berrikusteko prozedurari buruz dituen arauen berri izateko eskubidea.*
- *Ebaluazio objektiboa eta, ahal delarik, jarraitua jasotzeko eskubidea, irakaskuntzarako eta ikaskuntzarako metodologia aktiboa oinarri duena.*
- Kulturaren, kirolaren, ikasleen ordezkartzaren, solidaritatearen eta lankidetzaren arloko unibertsitateko *jardueretan parte hartzeagatik aitorpen akademikoa* jasotzeko eskubidea.

- **Arriskuen prebentzioari buruzko prestakuntza** jaso eta bere osasuna eta segurtasuna bermatzeko bitartekoak izateko eskubidea, ikaskuntza-jarduerak burutzerakoan.
- Gizarte-kontseiluak onetsi beharreko iraupen-arauei buruzko informazioa jasotzeko eskubidea, baita hauen ezarpenean eta funtzionamenduan erantzunkidetasunez parte hartzekoa ere.
- Beren datu pertsonalak Datu Pertsonalak Babesteko Legeak araututako xedekin eta ez bestela erabiliak izateko eskubidea.
- Ikasketetan zehar egindako *lanen auditoretza aitortzeko* eta horien *jabetza intelektuala babesteko* eskubidea.
- **Unibertsitateek**, beren aurrekontu-baliabideen barruan, hartu beharreko neurriak **hartuko dituzte** eskubide horiez denbora **partzialeko** ikasleak ere balia daitezzen, eta, bereziki, kualifikazioak **ikaskuntza malguko ibilbideak** osatuz eskura ditzaten.

- *Graduko, masterreko eta doktoregoko ikasleen eskubide espezifikoak aitortuko dira.*
- Graduko tituluak egiaztatzeko memoriei buruzko informazioa jasoko dute, eta horiek egiten parte hartuko dute.

Irakaskuntza-taldea aukeratzeko eskubidea, lanbide-jarduerak, akademiaz kanpoko jarduerak eta familiako jarduerak ikasketekin bateratzeko, eta, bereziki, genero-indarkeria jasandako emakumeek beren eskubideak baliatzeko eskubidea.

- Orientazio eta tutoretza pertsonalizatuak jasotzeko eskubidea.
- Mugikortasun-programetan parte hartzeko eskubidea.
- *Erakunde-balioespenetarako prozesuetan eta unibertsitate-kalitatea ziurtatzeko agentzietan parte hartzeko eskubidea.*

12. artikulua.- Eskubideen eraginkortasuna

- Unibertsitateek eskubideon berri emango die ikasleei eta horietaz balia daitezen erraztuko dute.
- Baliabideak eta moldaketak ezarriko dituzte, ikasle *minusbaliatuak* eskubide horietaz gainerako ikasleen maila berean balia daitezen.

13. artikulua.- Unibertsitateko ikasleen betebeharrak

- Ikastea eta *jarduera akademikoetan modu aktiboan parte hartzea.*
- Unibertsitate-komunitateko kideak *errespetatzea.*
- Ondasunak, ekipoak eta instalazioak *zaintzea.*
- Ebaluazio-probetan edo unibertsitateko dokumentu ofizialetan *iruzurrezko prozedurarik ez erabiltzea* eta horietarako laguntzarik ez ematea.
- Unibertsitate-jardueretan parte hartzea eta horietan lankidetzan aritzea.
- Unibertsitateko estatutuak eta gainerako arauak *ezagutzea* eta *betetzea.*
- Segurtasunaren eta osasunaren arloko barne-arauak *ezagutzea* eta *betetzea* (praktiketarako laborategiak eta ikerketa-eremuak)

- Unibertsitatearen izena, sinboloak eta ikurrak *errespetatzea*.
- Unibertsitateko ekitaldi akademikoak *errespetatzea*.
- Bereizkeriaren aurka aritzea eta hori sustatzea.
- Ordezkaritza-karguaren berezko eginbeharrak egitea.
- Ordezkatzen dituztenei kide diren organoen *jardueren eta erabakien berri ematea*, baita beraiek egindako jardueren berri ere.
- Kide izateko hautatua izan den organoko *bileretan* modu aktiboan eta erantzukizunez *parte hartzea*.
- Unibertsitatearen *helburuen eta funtzionamenduaren* hobekuntzan *laguntzea*.
- Ikasiko duen unibertsitateko estatutuetan ezarriko zaion beste edozein betebeharrak.

III. kapitulua: Unibertsitaterako sarrera eta onarpena

- Betebeharrak biltzen dituzten ikasleek eskubidea dute unibertsitateko irakaskuntzara sartzeko eta onarpeneskaria egiteko.
- Prozedurak pertsona minusbaliatuen beharretara moldatuko dira (leku irisgarriak, espazio birtualak, giza baliabideak eta bitarteko materialak eta teknikoak)

IV. kapitulua: Ikasleen mugikortasuna

- Oro har, mugikortasun-programak unibertsitate-irakaskuntzaren *hiru zikloetako edozeinetan garatu ahal izango dira*: graduan, masterrean zein doktoregoan.
 - *Gradua*: ikasketen bigarren erdian parte hartu ahal izango dute, gehienbat.
 - *Masterra*: *gehienez ere*, programek *seihileko bateko* iraupena izango dute 60-90 kredituko tituluetan, eta *ikasturte osokoa* 90-120 kredituko tituluetan.
 - *Nazioarteko doktoregoa*: araudi erregulatzailerak ezarritako iraupena izango dute egonaldiek.
 - **Eskumena duten administrazioek eta unibertsitateek** finantzazio-sistemak sustatuko dituzte, egonaldiek eragindako gastuak ordaintzeko.

- Egonaldia edo ikasturtea amaitzean, garatutako jarduera multzoen *hezkuntza-balio orokorrari* begiratuko diote unibertsitateek, **ez kredituen baliokidetzari edo irakasgaien antzekotasunari**.
- Horretarako, **unibertsitateek elkarrekikotasun-taulak ezarriko dituzte** aldebiko mugikortasun-hitzarmen guztietan.
- Mugikortasun-programak eta *kontratuan agertzen ez diren jarduerak Tituluaren Europako Gehigarrian jasoko dira*.
- Ikasle minusbaliatuak: **ezarri beharreko kupoak** ezarriko dira, *nahikoa finantzaketa egongo da, eta ikasle horientzako arreta-unitateen arteko informazio- eta lankidetzak-sistemak ezarriko dira*.

V. kapitulua: Tutoretzak

- Ikasleek honako hauen *orientazioa eta zeharkako jarraipena* jasoko dute:
 - Tituluaren helburuak
 - Bitarteko pertsonalak eta materialak
 - Irakaskuntzen egitura eta programa
 - Aplikatzen diren irakaskuntza-metodologiak
 - Ebaluaziorako prozedurak eta kronogramak
 - Kalitate-adierazleak (errendimendu-tasak eta tituludunen laneratze-tasak)

- *Orientazio-programetarako, ikastegiek tituluko koordinatzaileak eta tutoreak izendatu ahal izango dituzte, erkidegoko araudiaren eta unibertsitateko bertako araudiaren arabera.*
- Araudiaren arabera, unibertsitateek **tutoretza-sistemak bultzatuko** dituzte; horiek modu koordinatuan integratuko dituzte ikasleentzako informazioaren, orientazioaren eta hezkuntza-laguntzaren arloan **irakasleek eta langile espezializatuek** egindako ekintza guztiak.

Tituluko tutoretzak

1. *Tituluko koordinatzaileek eta tutoreek laguntza eta orientazioa eskainiko dizkiete ikasleei horien ikaskuntza-prozesuetan, lan-mundura iragatean eta lanbide-garapenean.*
2. *Tituluko tutoretzak* erraztasun hauek eskainiko ditu:
 - Ikaslea unibertsitate-girora iragatea eta egokitzea.
 - Ikaskuntzarako informazioa, orientazioa eta baliabideak.
 - Curriculum-ibilbidea osatzea, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen espezifikotasunak kontuan hartuta.
 - Lan-mundura iragatea, lanbide-ibilbidea garatzea eta etengabeko prestakuntzarako sarbidea izatea.

Gaiko edo irakasgaiko tutoretzak

- Irakasgaietan banakako tutoretzak jasotzeko eskubidea.
- **Sailak** tutoretzak betetzen direla egiaztatuko du.
- *Ikasleek tutoretzak jasotzeko aukera dutela bermatuko du unibertsitateak (ordutegiak...).*

Ikasle minusbaliatuentzako tutoretzak

- *Tutoretzak eta jarduerak moldatzea (toki irisgarrietan).*
- Sailek edo ikastegiek beharrezkoak diren moldaketa metodologikoak egingo dituzte.
- *Etengabeko tutoretzako programak, ikastaldi osorako tutore bat.*

VI. kapitulua: Titulu ofiziala lortzera bideraturiko ikasketetako ikasleen irakaskuntza-programa eta ebaluazioa

- Eskumena duten administrazioen laguntzarekin, **unibertsitatea arduratuko da irakaskuntzak eta ikasketen kudeaketak kalitate-baldintzak bete ditzaten.**
- Ikasleak: *matrikula-epea ireki baino lehen, ikasturte bakoitzeko irakaskuntza-programa ezagutzeko eskubidea.*
- **Irakaskuntza planek** honako hau zehaztuko dute:
 - irakaskuntza-helburuak, aurreikusitako ikaskuntza-emaitzak, edukiak, metodologia eta ebaluazio-sistema.
 - *Sailek edo ikastegiek* irakaskuntza-planak irakaskuntza-talde guztietan betetzen direla bermatuko dute.

- *Matrikula-epea ireki baino lehen*, ikastegiek ikasturterako *tituluaren plangintzaren* berri emango dute, honako hauek barne hartuta:
 - Ikasleak ikasten eta ikaskuntzan igaroko duen denbora ECTS kreditutan.
 - Irakaskuntza emateko aurreikusten diren irakasleak.
 - Gai/irakasgai bakoitzaren ordutegi-banaketa orokorra, *sailen arteko koordinaziotik abiatuta*.
 - Eskola-ordutegitik at egin beharreko lanak ere kontuan hartuko dira.
- Unibertsitateek *gaikako konpentsaziorako mekanismoak ezarri eta epaimahaiak* osatu ahal izango dituzte, ikasleak egindako ibilbide akademikoa eta lana epaitzeko.

24. artikulua.- Kanpo-praktika akademikoak

- Kanpo-praktiken bi modalitate daude: curriculum barrukoak (arautuak eta tutoretzapekoak) eta *curriculum kanpokoak* (borondatezkoak, *Tituluaren Europako Gehigarrian aipatuko dira*).
- Unibertsitateek lankidetzaz hitzarmenak sustatuko dituzte, eta *ikasle minusbaliatuentzako praktika irisgarriak* bultzatuko dituzte.
- *Praktika-programek plangintza* bat izango dute, eta honako hauek agertuko dira bertan: *gaitasunak, arduraldia ECTS kreditutan, prestakuntza-jarduerak, egutegia, ordutegia eta ebaluazio-sistema*.
- Unibertsitateak kanpo-praktiken **kalitatea bermatzeko prozedurak** edukiko ditu.
- Lankidetzaz hitzarmenetan **finantzaketa ezarri ahal izango da, ikasketa-laguntza moduan.**

25. artikulua.- *Ikaslearen ikaskuntzaren ebaluazioa*

- Irizpide publikoei eta objektiboei erantzungo die, eta **jarraitua izango da.**
- *Sailtako irakaskuntza-planetan ezarritakora egokituko da.*
- *Egutegiak, orduak eta datak eskumena duen organoak adostuko ditu, ikaslea arduraldiko osokoa edo partzialekoa dela kontuan hartuta.*
- Proben programazioa ezin izango da aldatu, *ustekabeko ezintasunen bat gertatzen denean salbu.*
- Ikasleek unibertsitateko organoetan parte hartzen badute, eskubidea izango dute azterketa beste egun eta ordu batean egiteko.
- *Ekidin egingo da ikasle batek ikasturte bereko zenbait irakasgairen proba orokorrak hogeita lau ordutik beherako epean egin beharra.*

26. artikulua.- *Ikasle minusbaliatuak*

- Metodologiaren, denboraren eta espazioaren arloko moldaketak.

27. artikulua.- Ebaluazio-lanak eta -memoriak

- Hurrengo ikasturtearen amaierara arte **gorde beharko dira lanak eta memoriak**, eta, ondoren, itzuli egingo dira ikasleek hala eskatuta.
- *Lana hein batean argitaratzea edo erreproduzitzea: egilearen baimena.*

28. artikulua.- Ebaluazio-epaimahaiak

- Ikasleak eskubidea izango du epaimahai batek ebaluatu dezan, eta *abstentzio eta irakaslearen ezespen kasuetan, sailak ordezeko irakasle bat izendatuko du* arloko edo kideko arloko irakasle iraunkorren artetik.

29. artikulua.- Kalifikazioen jakinarazpena

- Unibertsitateak ezarritako epeetan argitaratuko dira.
- Kalifikazioekin batera honako hau agertuko da: *erreklamazioa egiteko ordutegia, lekua eta data*, toki irisgarrietan.
- Irakasleek **probetako idatzizko materiala gordeko dute hurrengo ikasturtearen amaierara arte.**

30. artikulua.- Irakaslearen edo epaimahaiaren aurreko berrikusketa

- Epeak eta prozedurak: *unibertsitatearen araudia*.
- Berrikusketa *pertsonala, banakakoa eta ikasle minusbaliatuen hezkuntza-premietara moldatua izango da*.
- Berrikusketarako epea: *aktak argitaratu eta itxi baino lehen*.

31. artikulua.- Erreklamazioa eskumena duen organoaren aurrean

- *Erreklamazio Batzordean* ezingo dute parte hartu aurreko ebaluazioan parte hartu duten irakasleek.

VII. kapitulua: Titulu ofizialik lortzeko xederik ez duten ikasketetako ikasleentzako irakaskuntza-programazioa eta ebaluazioa

- Unibertsitateek *irakaskuntza mota hori erregulatzeko irizpideak ezarriko dituzte*, eta ikasleak kalitatezko prestakuntza jasotzeko eskubidea izango du.

VIII. kapitulua: Ikasleen parte-hartzea eta ordezkaritza

- *Gobernu-organoetan parte har dezaten sustatu* behar da, eta ikasleek *konpromisoa onartu* beharko dute.

35. artikulua.- Ordezkariek hautatzea

- *Ikasle guztiek gobernu-organoetan modu aktiboan eta demokratikoan parte hartzeko konpromisoa dute, beren ordezkariak hautatzearen bidez.*
- *Unibertsitateak parte-hartze aktiboa sustatuko du, informazioa eta bitarteko materialak emango ditu, eta eztabaida bultzatuko du.*
- *Ikasleen ordezkariak parekotasun-irizpideak errespetatu ditzaten sustatu* behar da, baita *ikasle minusbaliatuek parte har dezaten ere.*

36. artikulua.- Ordezkarien eskubideak

- Beren ordezkarietaz askatasunez baliatzeko eta iritziak askatasunez adierazteko.
- Unibertsitateak informazio zehatza eman diezaien.
- *Erabakiak hartzeko prozesuan erantzukidetasunez parte hartzeko.*
- Beren eginkizun akademikoak ordezkari-eginkizunekin bateragarri egiteko. **Unibertsitateek prozedurak arbitratuko dituzte aipatutako jarduerak ikasleek ordezkarien eginkizun akademikoari eragin ez diezaieten.**
- *Espazio fisikoak eta baliabide elektronikoak edukiko dituzte ordezkari gisa egindako jardueren berri emateko. Espazioak eta informazioa ikasleak minusbaliatuentzako moldatuta egongo dira.*

IX. kapitulua: Ikasleentzako bekak eta laguntzak

40. artikulua.- *Beken eta laguntza-programen oinarrizko printzipioak*

- *Printzipio orokorra:* ikasleek unibertsitateko ikasketak egiteari ez uko egitea arrazoi ekonomikoengatik.
- *Aurrerakortasun printzipioa:* esleitutako zenbatekoak ikasleen egoera sozio-ekonomikoari eta benetako premiei egokitzea.
- Nahikotasun eta berdintasun printzipioak zainduko dituzte, eta ikasleek onura akademikoa atera dezaten sustatuko dute.

X. kapitulua: Elkarbizitza aktiboa eta unibertsitatearen erantzukidetasuna sustatzea

- *Elkarbizitza sustatzea eta unibertsitateko komunitateko kideen eskubideak eta betebeharrak errespetatzea.*

45. artikulua.- Unibertsitatearen erantzukidetasuna

- Unibertsitate bakoitzak *erantzukidetasun-batzordeak* sortu ahal izango ditu bere ikastegietan; *batzorde horietan irakasleek, ikasleek eta AZPko langileek parte hartuko dute.*
- *Helburua:* analisi, eztabaida, kritika eta proposamenak egingo dituzte *etikarekin, kulturarekin eta gizartearekin* lotuta dauden auziei buruz, haien gaineko dikurtso publikoari ekarpenak egiteko moduan. *Batzorde horiek ez dira zigortzaileak.*
- *6/2001 Lege Organikoaren arabera, unibertsitateko organo eta zerbitzuen jardueren aurrean irakasleen, ikasleen eta AZPko langileen eskubideak eta askatasunak errespetatzeko, unibertsitateek unibertsitateko arartekoaren irudia sortuko dute beren antolaketa-egituran.*

XI. kapitulua: Estatuko Unibertsitate Ikasleen Kontseilua

- Ikasleek Hezkuntza Ministerioaren aurrean deliberatzeko, kontsultak egiteko eta parte hartzeko duten organoa da.
- Kontseilu horren jarduerak Hezkuntza Ministerioari atxikita daude, Unibertsitateen Idazkaritza Nagusiaren bidez.
- Unibertsitateek Hezkuntza Ministeriora bidaliko dituzte beren ikasleen ordezkarien izendapenak estatutu hau indarrean sartu eta hiru hilabeteko epean gehienez ere.

XII. kapitulua: Ikasleen kirol-jarduerak

- Ikaslearen prestakuntzaren zati bat da. *Unibertsitateek egiturak eta programak garatu beharko dituzte, eta kirol-jarduerak egiteko beharrezkoak diren bitarteko materialak eta espazioak edukiko dituzte.*
- Unibertsitateek *jarduera akademikoaren eta kirol-jardueren bateragarritasuna sustatuko dute.*
- Kirol Kontseilu Gorenak aitortutako **goi-mailako kirolariaren maila dutenei** edo autonomia erkidegoek aitortutako **kirolari prestatuaren maila edo antzekoa dutenei** unibertsitateek erraztu egingo diete *unibertsitatera sartzea, orientazio- eta jarraipen- sistemak erabiltzea eta ikasketak kirol-jarduerarekin bateragarri egitea.*

XIII. kapitulua: Balioetan heztea

- Unibertsitateek **jarduerak sustatuko dituzte ikasleen prestakuntzan balioak bultzatzeko**: berdintasuna, askatasuna, solidaritatea eta aniztasuna errespetatzea eta haren balioa aitortzea; halaber, ingurumen-balioak eta iraunkortasun-balioak sustatuko dituzte.
- Unibertsitateko jarduerak baldintza egokiak *bultzatuko* ditu *ikasleak autonomoak, arduratsuak, zentzudunak, justiziaren zentzua dutenak eta beren erabakiek eragiten dieten beste batzuekiko enpatia dutenak izan* daitezen; batik bat, beren interesak baliatzeko gaitasun gutxiago dutenekiko.

XIV. kapitulua: Ikasleen jarduerak gizarte-partaidetzaren eta garapenerako lankidetzaren arloan

- Gizarte-partaidetzarekin eta garapenerako lankidetzarekin lotutako ikasleen *eskubideak eta betebeharrak* honakoak dira:
 - *Gizarte-partaidetzako eta garapenerako lankidetzako jardueretan parte hartzeko eskubidea eta horiek egiteko doako prestakuntza jasotzeko eskubidea.*
 - *Gizarte-partaidetzako eta garapenerako lankidetzako jarduerak behar bezala gauzatzeko antolatutako prestakuntza-jardueretan parte hartzeko betebeharra.*
 - *Lankidetzako boluntario gisa egiaztagiria jasotzeko eta unibertsitateak ziurtagiri bat emateko eskubidea, boluntarioak emandako zerbitzuak egiaztatze aldera.*
- Unibertsitateek proiektu horietan *practicum* bat (nahitaezkoa edo borondatezkoa) egiteko aukera eskainiko dute.
- Gizarte-partaidetzako eta garapenerako lankidetzako proiektuetan *ikasle minusbaliatuek parte har dezaten* sustatuko da.

XV. kapitulua: Unibertsitateko Ikasleentzako Arreta

- Unibertsitateek ikasleen arretarako unitateak eduki ahal izango dituzte.
- Unibertsitateek, ahal duten neurrian, *gutxieneko duintasun baldintzak dituen ostatura* eskainiko dute.

XVI. kapitulua: Ikasle ohien elkarteak

- Unibertsitateetako ikasle ohiak elkarteetan antolatu ahal izango dira, eta elkarte horiek unibertsitateetan *erregistratu beharko dira, unibertsitateek ezarritako baldintzei eta prozedurei jarraiki.*
- Elkarte horiek *beren unibertsitateen irudia sustatuko dute*, eta bertako tituludunak *laneratzen, ikasle berriak aurkitzen eta kultura-jarduerak* edo gizarte-intereseko jarduerak antolatzen lagunduko dute.
- Elkarte horiek unibertsitatea helburutzat duten *mezenasgo jarduerak* bultzatuko dituzte, baita *unibertsitatearen eta gizartearen arteko harremanak estutzeko balio duten beste edozein jarduera ere.*
- Unibertsitateek *ikasle ohien elkartearen nazioarteko hedakuntza, sareen sorrera eta unibertsitatearen arteko jarduerak* bultzatuko dituzte.

MILA ESKER ZUEN ARRETAGATIK



GRACIAS POR VUESTRA ATENCIÓN